



LANEKO EZBEHARREN KOPURUA HEGO EUSKAL HERRIAN (2017)

0. SARRERA

Hazten jarraitu du 2017an ere laneko ezbeharren kopuruak. 2014an hasi zen gorako joera hori, eta areagotu egin da azken urteotan. Jarduera ekonomikoa handitzeak berekin ekarri du ezbeharren kopuruak ere gora egitea, baina batez ere lanbaldintzen prekarizazioa, geroz eta handiagoa, dugu joera horren eragilea. Miseriazko soldatak, lanaldi partzialeko kontratazioaren gehiegizko erabilera, justifikaziorik gabeko behin-behinekotasuna..., horiek dira patronalak ezarri nahi dituen irizpideak, gobernuak bere alde dituela. Horren ondorio da, besteak beste, langileon etengabeko eskubidegalera eta laneko ezbeharren eta gaixotasun profesionalen ugaltzea. Esan beharrik ere ez dago segurtasunak eta osasunak bigarren mailako gaiak direla enpresentzat, ez daukatela prebentzioaren kulturarik, produktibitateari eta etekinei ematen ditela lehenetsuna, langileen osasunaren eta bizitzaren gainetik...

Igo egin da azken urteotan laneko ezbeharren eta gaixotasun profesionalen eragindakoen kopurua, termino absolutuetan eta erlatiboetan. Harro asko agertu ziren erakunde publikoak krisi-garaian behera laneko ezbeharren kopuruak behera egin zuela-eta; orain, berriz, populazio aktiboaren hazkundeak ekarri omen du ezbehar-kopuruaren handitzea. Administrazioak ez du aipatzen, noski, porrot egin dutela prebentzio-politika publikoek. Inondik ere ezin da onartu arrazoibide hori; izan ere, langileen osasunak jasaten dituen kalteak saihestu daitezke neurri eraginkorrek hartuta. Baina ez da horretarako baliabiderik jartzen. Eta, bien bitartean, berrogeita hamar langiletik gora hiltzen dira, urtero, Euskal Herriko lantegietan.

1. ESTADISTIKA OFIZIALAK

1.1. EAE

EAEko laneko ezbeharren kopuruei buruzko estatistika ofizialei dagokienez, baja eragin zuten 35.256 laneko ezbehar egon ziren iaz, hots, aurreko urteko epe berean baino % 5,74 gehiago, Osalanen 2017ko abenduan erregistratutako datuen arabera. Bestalde, baxerik eragin ez zuten beste 48.634 istripu ere gehitu behar zaizkio kopuru horri; beraz, guztira 83.890 laneko ezbehar egon ziren iaz. Termino absolutuetan, % 1,32 egin zuen behera ezbehar-portzentajeak, jaitasi egin baitzen baxerik eragin ez zuten istripuen zenbatekoak, batez ere Araban (-2.103).

Baja eragin zuten istripuetatik, 33.564 ezbehar berriak izan ziren (+ % 6,20) eta 1.692, berriz, birgaixotzeak. Lehenbizikoei dagokienez, EAEko hiru herrialdetan egin zuen gora kopuruak, eta ezbeharretatik 29.629 lanaldian zehar gertatu ziren; gainerako 3.935an, in itinere.

Larritasunari gagozkiola, 33.333 ezbehar arin egon ziren iaz; larriak, berriz, 199, eta 32, azkenik, istripu hilgarriak izan ziren. Honenbestez, gora egin zuen ezbehar arinen (% 6,17) eta larrien (% 20,61) kopuruak; hilgarrienak, berriz, % 20 egin zuen behera, guztira (-8), baina gora Gipuzkoan (+4).

2017KO LANEKO EZBEHARREN KOPURUA

Baxerik gabek

Arinak

Larriak

Hilgarriak

GUZTIRA

ARABA	9.944	5.968	51	3	15.966
BIZKAIA	23.124	17.416	83	17	40.640
GIPUZKOA	15.566	9.949	65	12	25.592
EAE	48.634	33.333	199	32	82.198(*)

(*) Erregistratutako 1.692 birgaixotzeak gehituta, guztira 83.890

www.osalan.euskadi.eus

2016KO LANEKO EZBEHARREN KOPURUA

	Bajarik gabeak	Arinak	Larriak	Hilgarriak	GUZTIRA
ARABA	12.047	5.826	33	5	17.911
BIZKAIA	24.078	16.223	75	27	40.301
GIPUZKOA	15.550	9.450	57	8	25.065
EAE	51.675	31.397	165	40	83.277(*)

(*) Erregistratutako 1.739 birgaixotzeak gehituta, guztira 85.016

www.osalan.euskadi.eus

Termino erlatiboetan (baja eragin zuten laneko ezbeharrak, lanaldian zehar gertatuak, 1.000 langileko), berriz, 2017an % 2,93 egin zuen gora kopuruak 2016aren alderatuta, hau da, aurreko ekitaldikoaren antzekoa izan zen joera. Lurraldeka, Bizkaian eta Gipuzkoan hazten jarraitu zuen kopuruak (+ % 4,85 eta + % 2,81, hurrenez hurren), eta jaitsi egin zen, apur bat, Araban (- % 0,79). Sektoreka, eraikuntza nabarmendu zen: Gipuzkoan, % 11,96 igo zen kopurua, aurreko urtekoarekiko.

Bereziki adierazgarria da azken datu hori, indize erlatiboa izaki ez baitauka zuzeneko loturarik populazio aktiboaren datuarekin. Kontua da enplegu berria geroz eta prekarioagoa dela, eta horregatik egin duela okerrera indizeak azken lau urteotan. Gogora dezagun laneko ezbeharren % 50 kontratazio-epearen lehenbiziko bi hilabeteetan gertatu ohi direla, eta kontratu berrien % 50ek hilabeteetik beherako iraupena izaten dutela.

2017KO INTZIDENTZIA-INDIZEAK

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
ARABA	47,02	59,83	89,36	28,65	39,43
BIZKAIA	91,31	70,69	87,35	28,96	39,57
GIPUZKOA	79,03	62,44	82,59	24,34	35,48
EAE	75,58	65,29	86,27	27,44	38,22

www.osalan.euskadi.eus

2016KO INTZIDENTZIA-INDIZEAK

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
ARABA	51,44	58,61	88,80	30,13	40,22
BIZKAIA	96,05	68,22	82,36	27,34	37,74

GIPUZKOA	71,99	62,31	73,77	23,60	34,51
EAE	76,87	63,93	80,78	26,59	37,13

www.osalan.euskadi.eus

1.2. NAFARROA

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko estatistiken arabera, 2017an baja eragin zuten 8.904 laneko ezbehar izan ziren, horietatik 8.633 arinak, 60 larriak eta 11 hilgarriak. Kopuru horretatik, lanaldian zehar gertatu ziren istripuetako 7.844; 217, berriz, langile autonomoek izan zituzten, eta 843 in itinere jazo ziren. Bajarik eragin ez zuten ezbeharrak, berriz, 13.806 izan ziren, eta birgaixotzeak 481; guztira, beraz, 23.191 laneko ezbehar egon ziren.

2016KO ETA 2017KO LANEKO EZBEHARREN KOPURUEN ALDERAKETA

	Bajarik gabeak	Arinak	Larriak	Hilgarriak	GUZTIRA
2017	13.806	8.833	60	11	22.710 (*)
2016	13.448	8.329	65	9	21.851 (**)

(*) Erregistratutako 481 birgaixotzeak gehituta, guztira 23.191

www.navarra.es

(**) Erregistratutako 501 birgaixotzeak gehituta, guztira 22.352

Beraz, % 4 inguru igo zen laneko istripuen zenbateko osoa, aurreko urtekoarekin alderatuta. Istripu hilgarrien portzentajea % 20 baino gehiago handitu zen, eta arinena % 6; ezbehar larriei dagokienez, bost gutxiago egon ziren (- % 7,7). Gogoan izateko moduko datua da termino erlatiboetan ere gora egin zutela balioek. Intzidentzia-indizea (lanaldian zehar gertatutako baja eragin zuten laneko ezbeharren kopurua, 1.000 langileko) igo egin zen, % 2,64, batez ere lehen sektorean. Hona hemen azken bi urteotako indizeen alderaketa.

INTZIDENTZIA-INDIZEEN ALDERAKETA (2017-2016)

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
2017	51,3	56,4	70,0	22,8	35,0
2016	45,6	52,4	75,7	23,2	34,1

www.navarra.es

1.3. ELA-REN BALORAZIOA

Laneko ezbeharrei buruzko estatistika ofizialen balorazioa egitean, gogoan izan datuek ez dutela adierazten, inondik ere, enpresetako eta lantokietako egoeraren gordintasuna. Izan ere, badago laneko ezbeharren eta gaixotasun profesionalen halako "azpierreregistro" moduko bat, faktore hauen eraginez batez ere:

-Babesik eza. Ezbeharren bat izan duten langile askok ezin dute eman istripuaren eta jasandako kalteen berri, batez ere lan-baldintza oso prekarioetan dihardutelako eta lanik gabe geratzeko beldur direlako edo errepresaliaren bat jaso dezaketelako.

-Datuak ezkutatzea. Zenbait enpresak ez dute ematen ezbeharren berri, dagozkien erantzukizunak saihestearren. Bestalde, iruzurrik ere egin ohi da ezbeharren berri ematean, eta istripurik larrienak, batzuetan, arintzat erregistratzen dira; beste batzuk, berriz, ez dira erregistratu ere egiten. Zergatik egiten duten hori enpresek? Bada, diru-laguntza publikoak eskuratzeko, batez ere Gizarte Segurantzako kotizazioen murrizketak, istripu gutxi izaten dituzten enpresei ematen zaizkien alegia. "Bonus" sistema deitzen zaio horri. 2017an, Enplegu Ministerioak kendu egin zuen langileen onespeneren baldintza, sistema kontrolatzeko eta fiskalizatzeko aukera ematen zuena, alegia.

-Mutualitateak. Geroz eta botere handiagoa dute, eta funtsezkoa da haien esku-hartzea laneko ezbeharrak ezkutatzeko ekinean. Enpresekin elkarlanean jarduten dira mutualitateak, legez kontrako jokabideez baliatuz, bajarik ez emateko eta laneko ezbeharrei buruzko datuak apaintzeko. Gainera, mutualitateei buruzko azken legearen babespean Espainiako gobernuak prestatzen ari den erregulazioei esker, berriz ere prebentzio-jarduerak egiteko aukera izango dute mutualitateek eta, hartara, aipatutako "bonus" horren parte bat bereganatu ahalko dute.

Bestalde, informaziorik ez zaigula ematen behin eta berriro salatu ondoren, balorazio positiboa egiten du ELAk Osalanen zuzendaritza berriaren irizpide-aldaketaz. Izan ere, istripu hilgarriei buruzko datuak ematen hasi da berriro Osalan, eta aldatu egin du aurreko jarrera, zeinaren helburua hau baitzen: estatistika ofizialen irakurketa propioak eragozteak.

Aldiz, zenbait istripu ezkutatu egiten dira, gaur egun ere, estatistika ofizialetan erregistratu aurretik. Horren adibide ditugu estaldurarik gabeko autonomoek izaten dituzten ezbeharrak eta in itinere gertatu ohi direnak, hau da, datu ofizialetan aipatzen ez den istripu-kopuru handia, urtero. Nafarroan, datu ofizialetatik kanpo uzten ditu Osasun Publikoaren eta Lan Publikoaren Institutuak zenbait istripu; adibidez, kooperatibistenak eta lurraldetik kanpoko enpresetan diharduten langileenak.

Errepideko garraioaren sektorea nabarmentzen da azpierregrastro horretan, laneko istripu asko trafikoko ezbehar gisara erregistratzen baitira.

2. ELA-REN ESTATISTIKAK

ELAren datuen arabera, 2017an 54 langile hil ziren Hego Euskal Herrian lan-ezbeharrez, 41 EAEn eta 13 Nafarroan. 2014an eta 2015ean istripu hilgarrien kopuruak izandako igoera handiaren ostean, hurrengo bi urteetan apur bat baretu zen joera (53 eta 54 hildako, hurrenez hurren).

Nabarmentzekoa da Gipuzkoan eta Araban izandako igoera, 2017 ia bikoiztu egin baitzen aurreko urteko hildako-kopurua. Bizkaian, berriz, behera egin zuen kopuruak (-% 31), eta Nafarroan bere horretan geratu zen (13 hildako).

ISTRIPU HILGARRIAK

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	GUZTIRA
2017	5	20	16	13	54
2016	3	29	8	13	53

ELAren datu estatistikoak ez datoz bat iturri ofizialek ematen dituztenekin, lan-ezbeharrez hildako langileen kopuruari dagokionez. Iturri ofizialetan, % 25 txikiagoa da hildakoen portzentajea. “Azpierreregistro” horretatik, gehiena Gipuzkoan egiten da (9), baina Nafarroan ere egin ohi da (2).

Hona hemen ELAk erregistratutako ezbehar hilgarrien gaineko azterketa zehatzago bat:

1. Istripuen % 79,6 traumatikoak dira; horietatik, % 23,2 kolpeek eta harrapaketek eraginak, eta % 18,6 altuerako erorikoen ondorio. Aipatzekoak dira bero-kolpe batean izandako bi hildakoak.
2. Sektoreka, industria da ezbehar traumatiko gehien izaten duena (% 42,6). Atzetik datoz zerbitzuak (% 33) eta eraikuntza (% 11).
3. Ezbehar ez-traumatikoak, berriz, % 20,4 dira. Azken urtean, jaitsi egin da, apur bat, portzentajea. Suizidioei dagokienez, ezin izan dugu jakin zenbateko osoa (2016an, % 6).
4. In itinere gertatutako istripuak, berriz, % 14,8 izan ziren, hots, aurreko urteko portzentaje bera. Aipatzekoa da Nafarroan azkeneko bi urteetan izandako igoera.
5. Nabarmenezko datua da, halaber, *in misión* gertatutako istripuen kopurua (% 22,2), zeinaren bi heren garraio-sektoreari dagozkion.
6. Bestalde, hildako langileetatik heren bat, gutxienez, azpikontrataren batean ari ziren, eta autonomia zen seitik bat.

Istripu traumatiko hilgarrien portzentaje handiak adierazten duenez, sektore guztietan dira eskasak laneko segurtasunaren baldintzak, eta bereziki kezagarria da kolpe, harrapaketa eta altuerako erorikoak direla-eta izandako hildako-kopurua. Gora egin du hildakoen kopuruak eraikuntzan, lehen sektorean eta autonomoen artean.

Lehengo antzera geratu da, bestalde, in itinere gertatutako istripu ez-traumatikoen portzentajea, eta gora egin du *in misión* jazotakoenak.

Azpikontratazioa, berriz, geroz eta gehiago ari da hedatzen, sektore guztietan gainera, eta zuzeneko eragina du langileengan: geroz eta okerragoak dira lan-baldintzak, eta esponentzialki areagotzen da istripuren bat jasateko arriskua.

GAIXOTASUN PROFESIONALAK

Gaixotasun profesionalei buruzko estatistika ofizialetatik nabarmenezko moduko

datua hau dugu: inondik ere ez dute islatzen benetako egoera. Eskandalagarria da gaixotasun horien azpierregeroa; izan ere, portzentaje handi bat erregistratu ere ez da egiten; beste asko, berriz, gaixotasun arrunt gisara erregistratzen dira.

Mutualitateek erantzukizun handia dute azpierregero horretan, haiei baitagokie gaixotasun profesionalen parteak egitea. Sistematikoki ukatzen dute mutualitateek patologien jatorria lana dela, eta osasun-sistema publikora bideratzen dute gaixotasun horien artapena; horrez gain, errekurso judizialak aurkezten dituzte Gizarte Segurantzaren gaixotasun profesionaleri buruzko ebazpenen aurka, oztopatu egiten dute gaitz horien aitortza, eta luzatu gaixoen eta haien senitartekoen sufrimendua.

Berriro salatu beharrean gara, bestalde, EAEko gaixotasun profesionalen susmoak jakinarazteko sistemaren eraginkortasunik eza, bai prebentzio-zerbitzuena eta osasun-sistema publikoarena, bai Osalanen kudeaketarena. Kontuan hartzeko moduko datua da honako hau: gaixotasun profesionalen susmoak norberaren borondatez adierazteko sistemak dauden herrialdeetan, handiagoak dira jakinarazte-indizeak nahitaezko sistematan baino.

Horren adibide garbia dugu Nafarroako Gertakari Zelatariak deritzon jakinarazte-sarea. 2017an, norberaren borondatez jakinarazteko 1.397 laneko patologien berri eman zen sistema horren bidez lehen mailako arretan, eta lanarekin lotura zuten 580 patologien berri (211, psikosozialak). Horietatik, 116 kontingentzia-aldaketaren izapideak egin ziren, eta haien % 80 onartu zituen Gizarte Segurantzak. Datu horiek oinarri direla baloratu ditu ELAK sistemaren helburuak eta jatorria lanean duten patologia mentalen tratamendua; dena dela, nabarmenak dira mugak % 5etik beherako onspen-indizea duten azken emaitzetan.

Nafarroako datuok adierazten dutenez, geroz eta ugariagoak dira arrisku psikosozialek eragindako gaixotasun profesionalak pairatzen dituzten langileak, eta bat dator datu hori gure Laneko Osasun Sailari egiten zaion kontsulta-kopuru geroz eta handiagoarekin. Izan ere, arrisku psikosozialak langileen osasun-arazo larri bihurtu dira.

3.1- EAE

2017an, alde batera utzirik azkenik laneko ezbehar edo gaixotasun arrunt gisara sailkatutako kasuak, gaixotasun profesionalen 3.101 parte igorri ziren, horietatik % 50 Bizkaian (1.546 parte); atzetik datoz Gipuzkoa (1.126) eta Araba (429). Sektoreka, industrian dago patologia gehien (% 54); ondoren, zerbitzuetan.

GAIXOTASUN PROFESIONALAK (2017)

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
ARABA	3	208	19	199	429
BIZKAIA	15	866	112	553	1.546
GIPUZKOA	13	591	54	468	1.126
EAE	31	1.665	185	1.220	3.101

www.osalan.euskadi.eus

2016an, 2.745 parte igorri ziren, hau da, % 13 egin du gora kopuruak azken urtean

(+356). 2017ko zenbatekotik, erdia baino gehixeago baja eragin zuten gaixotasunak izan ziren. Nabarmentzekoa da langile gehienak emakumeak diren zerbitzuen sektoreko patologia jakin batzuen intzidentzia.

ELAk balorazio positiboa egiten du karpoko kanalaren sindromea dela-eta kaleratu diren azken epaiez, garbitzaileen eta zaharren zaintzaileen gaixotasun profesionaltzat aitortzen baitute gaitz hori.

GAIXOTASUN PROFESIONALEN ALDERAKETA (2017-2016)

EAE	Bajadunak	Bajarik gabeak	GUZTIRA
2017	1.445	1.656	3.101
2016	1.148	1.597	2.745

www.osalan.euskadi.eus

Gaixotasun profesionalaren multzoari gagozkiola, estatistika ofizialek ez dute aipatzen substantzia edo produktu kantzerigenoek eragindako arriskurik. Kontuan izanik amiantoarekin lan egindako 19 langile hil zirela 2017an EAEn, eta beste 12 aurten, bistakoa da estatistika ofizialen erregistroetan ez direla behar bezala jasotzen ari gaitz horien eragina. Guztira, 200dik gora izango dira mineral kantzerigeno horren eraginez EAEn hildako langileak, eta beste 6.000 inguruk jasan dute haren nolabaiteko eragina. Europar Batasunak dioenez, laneko ezbeharrez hiltzen den langile bakoitzeko 18 hiltzen dira gaixotasun profesionalaz. Datu kezkarriak, zalantzarik gabe.

3.2. NAFARROA

Nafarroan, gaixotasun profesionalari buruzko 1.420 parte igorri ziren 2017an **CEPROSS**en bidez; horietatik, % 48 industriaren sektorekoak ziren, eta % 46 zerbitzuetakoak.

GAIXOTASUN PROFESIONALAK (2017)

	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
2017	13	687	49	657	1.420

Iturria: www.navarra.es

Igorritako parteetatik, % 52 bajarik eragin ez zuten patologiei zegozkien; gainerakoak, berriz, baja eragin zutenei. 2016an, 1.580 parte igorri ziren, hots, % 10 gutxiago jakinarazpenkopuru osoari dagokionez.

GAIXOTASUN PROFESIONALEN ALDERAKETA (2017-2016)

	Bajadunak	Bajarik gabeak	GUZTIRA
2017	680	740	1.420
2016	788	792	1.580

4. ONDORIOAK

1. Hego Euskal Herriko laneko ezbeharren arazoak oso kezkarria izaten jarraitzen du. Laneko istripuen kopuru osoaren jaitsiera baxerik gabeko ezbeharren zenbatekoaren gutxitzeak eragin du; baxerik gabeko istripuen kopuruak, aldiz, gora egin du, termino absolutuetan eta erlatiboetan, batez ere ezbehar arinei eta larriei dagokienez. Lurralde guztietan nabaritu da igoera; hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoaren areagotzeari egotzen diote administrazio publikoek handitze hori, eta positibotzat jotzen dute azken urteetan behera egin izana. Jakina, ez dute aipatzen krisiak eta eraikuntza-sektorean izandako enplegu-galerak eragin handia izan zutela ezbeharren kopuruaren jaitsieran eta, bien bitartean, ez dituzte batera aldatzen laneko segurtasun- eta osasun-politikak. Onartezina, inondik ere.

2. Prekarietatea eta enpleguaren kalitate eskasa dira laneko ezbeharren eragile nagusiak. Kontrolik gabeko eta kate gisako azpikontratazioa, lan-karga eta -erritmo jasangaitzak, justifikaziorik gabeko lanaldi partzialeko lana eta horrek berekin dakarren enplegu-aniztasuna, trebakuntzarik eza, inbertsiorik ez segurtasunean eta osasunean..., horra arazo sozial larri horren atzean dauden egiturazko faktoreak.

3. Laneko ezbeharrei buruzko estatistika ofizialek, berriz, ez dute benetako egoera islatzen, eta istripu gehienak berri ez da plazaratzen.

4. Gaixotasun profesionalei dagokienez, berriz, izugarria da erregistratzen eta onartzen ez direnen kopurua. Hor ere, datu ofizialek ez dute benetako egoera jasotzen. Europan, geroz eta gehiago dira gaixotasun horiek jasaten dituzten langileak, eta ez da zalantzan jartzen eragin handia dutela gizartean; hemen, aldiz, garrantzirik gabeko gaia izaten jarraitzen du administrazioarentzat.

Gainera, are larriagoa ari dira bihurtzen egoera administrazioen **murrizketak eta doikuntzak**. Laneko osasunaren alorreko gastu publikoa, adibidez, hutsaren hurrengo da (BPGaren % 0,020ra ere ez da iristen).

6.- Lan-harremanen prekarizazioak, berriz, zuzeneko eragina du langileen osasun psikosozialean. Premiak areagotu egin dira, eta babesak murriztu; hala eta guztiz ere, ez da behar adina baliabide bideratzen arrisku psikosozialak kudeatzera, arazo oso larria bihurtu diren arren ELAk hauteman duenez, osasun mentaleko arazoak areagotu egin dira azkenaldi honetan. Eta arazo horiek zuzeneko lotura dute lanaren antolakuntzarekin; besteak beste, sexu-jazarpenarekin eta lanekoarekin.

7. EAEko eta Nafarroako administrazio publikoek, berriz, ez dute neurri eta politika eraginkorrik aplikatzen laneko istripuak eragiten dituzten faktoreei aurre egiteko. Sentsibilizazio- eta propaganda-kanpainetatik aparte, apenas bideratzen den baliabiderik zeregin horretara. Bistakoa da, beraz, ez dagoela borondate politikorik enpresetan eta lantokietan gai horri buruzko ekimen publikorik martxan jartzeko. Laneko ezbeharrei aurre egiteko, patronalaren interesei ekin behar zaie; horretarako borondatearik ez badago, ateak zabalik uzten zaizkio prekarietateari lan-merkatuan, baita administrazioaren zenbait alorrean ere.

5.- ELA-REN PROPOSAMENAK

1.- Handitu egin behar da laneko osasunerako aurrekontua, bai EAEn bai Nafarroan, aurrerago azalduko ditugun aldarrikapenak asetzeko.

2.- Teknikari gehiago kontratatu behar ditu Osalanek, 250era iritsi arte (egun, 176 dira; Nafarroan, berriz, 50 behar ditu ISPLNk (28 ditu egun).

3.- Lan Ikuskaritzari dagokionez, ikuskatzaile gehiago behar dira EAEn eta Nafarroan, eta Europako batez besteko kopurura iritsi behar da, hau da, ikuskatzaile bat 7.300 soldatapeko langileko. Aldarrikatzen dugu, beraz, EAEn 122 ikuskatzaile egotea, eta 37 Nafarroan (egun, 47 daude EAEn, eta 15 Nafarroan).

4.- Istripuetako askotan, makinak zapaldu edo harrapatu egiten du langilea; hori dela eta, exijitzen dugu Osalanek ikuskatzea horrelako ezbeharrak eragin ditzaketen makina guztiak, CE markaren baldintzak eta Lan Ekipoei buruzko 1215 EDren arauak betetzen dituzten jakiteko, eta ikusteko ekipo horiek erabiltzen dituzten langileek jaso zuten prebentzioari buruzko trebakuntzarik, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko 31/95 Legeak agintzen duenari jarraikiz.

5.- Altuerako lanak dira beste arrisku-faktore larri bat; horregatik, eskatzen dugu nahitaezkoa izatea Osalani jakinaraztea arrisku berezia duten altuerako lan ororen berri, Osalaneko teknikariak lantoki horretara joan eta ikus dezaten langileek baduten ala ez trebakuntzarik lan-mota horretaz, eta zer baliabide tekniko dituzten (arnesak, segurtasun-sokak...); begiratu behar dute, halaber, ekipoak ondo dauden eta behar bezala erabiltzen diren.

6. Joan-etorrietan izaten diren lan-istripuek ere heriotza asko eragin dute azken urteotan. Egoera horri aurre egiteko, hau eskatzen dugu: istripu gehien izaten den lekuen zerrenda eta mapa bat egitea errepideez arduratzen diren administrazioek, eta hobekuntza-plan bat prestatzea, gure errepideetatik "gune beltz" horiek kentzeko. Bestalde, gora egin du azken urteotan errepideetan lan egiten dutenen harrapaketen kopuruak (mantentze-lanetako langileak, segurtasunekoak eta larrialdietakoak). Kasu horietarako, hau eskatzen diegu Osalani eta ISPLNri: berrikus ditzatela alor horretako berriazko protokoloak, langile horien harrapaketak saihesteko, eta prebentzio-kanpaina bat egin dezatela.

7.- Eskatzen dugu zerrenda batean jasotzea istripu larriak, oso larriak edo hilgarriak izaten dituzten enpresen izenak, eta zerrenda hori argitaratzea.

8.- Eskatzen dugu kristal-silizearekin lan egin eta egiten duten langileen zerrenda bat osatzea, amiantoarekin jardundakoekin egin zen bezala, eta lana utzi ondoren ere proba medikoak egiten jarraitzea.

9.- Eskatzen dugu produktu kimiko kantzerigeno, teratogeno edo mutagenoren bat dagoen enpresen zerrenda bat egitea, eta produktu horien eraginpean jardun diren langileen erregistro bat sortzea; eskatzen dugu, halaber, Osalaneko eta ISPLNko teknikariek lantegi horiek bisitatzea, produktu horiek kentzeko prozesuan bitartekari jardun daitezten eta produktu kantzerigenoei buruzko 665/97 EDA martxan jarri den begira dezaten.

10.- Aldarrikatzen dugu EAEn ere martxan jartzea Nafarroako "ZELATARIAK" sistemaren antzekoren bat, Osalanek azter dezan osasun-zerbitzu publikora bideratzen diren patologien jatorria lanekoa den ala ez, eta dagozkion izapideak egin ditzan dagokion mutualitate edo prebentzio-zerbitzura bideratzeko. Eskatzen dugu, halaber, Osalanek txostenak egitea gaixotasun profesionalen susmorik atzemanaz gero, langileek edo sindikatuek hala eskatzen badute, eta ez bakarrik INSSren aginduz, hala egiten baitu gaur egun.